

Hipoteka dela eta Ukitutako plataformatik kanpaina bat hasi behar dugu Espainia osoan, etxebizitzako lege zuzen bat lortzeko. Orain dela lau urte saiatu ginen ILP-aren bidez, jakingo duzuen bezala 1.500.000 sinadura lortu genituen, baina azkenean diputatuen batzarrarengatik deuseztatu egin ziren.

Orain berriro saiaturako gara eta lortu egingo dugu, eta hori dela eta zuen laguntza behar dugu

Madriden egin behar dugu, eskarmentua bait daukagu Nafarroan onartutako legeak gero Madriden, errekurtsioen bidez, Gobernuak desaktibatu egin dituela

Kanpainaren ardatzak, etorkizuneko legeak bilduko dituen proposamen inguruan mugituko da. proposamenak hauek dira:

1. Atzerakinezko ordainketa
2. Alokairu merkea
3. Etxegabetzeak gelditu
4. Etxebizitza soziala
5. Oinarrizko hornikuntza bermatu

Ikusten duzuen bezala, puntu hauek gutxienezkoak eta oinarrizkoak dira krisia dela eta zigortuta dauden familientzat. Hauekin lortu nahi duguna familia hauek krisialditik ateratzea eta bizi berri eta duin bat hastea

Oraingoz data batzuk dauzkagu itxita aurreikusitako ekintzekin, lanean ari gara hauei edukiez betetzeko:

- Martxoak 29, 19 orduetan, Irunako Udaletxeko plazan kontzentrazioa
- Apirilak 5, 11-etan, Nafarroako Parlamentuaren frentean kontzentrazioa
- Apirilak 18, 11-etan, prentsa aurrekoa Kondestablean
- Apirilak 26, 19 orduetan, Zezen Plazatik manifestazioa

Eskatzen dizuegun lehena, HUT kanpaina honekin atxikipena. Behar zaituztegu, konpromisoa eta bateratua dagoen gizarte bat erakutsi nahi dugulako, kapaz dena estatu eta botere ekonomikoen aurrean borroka egiteko. Apirilak 12 baino lehenago jakin nahi dugu gurekin bat egiten duzuen.

Aurrerago, prentsa aurrekoan, talde bakoitzeko ordezkari baten parte hartzea eskatuko zaizue. Baita ere, zuen aktibistei manifestaziora joateko animatu dezazuen.

Historia egin dezakegu etxebizitza duin baten legearekin, baina horretarako guztien laguntza behar dugu.

Mila esker zuen parte hartzeagatik